

# Aretxagazeta



## ETA GAINERA...

### Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Jai batzordea San Pedroak prestatzen /8**

ELKARRIZKETA

**Daniella Cotica, 'Comenius'eko kidea /9**

LEINTZ GATZAGA

**Umeak Getariara joateko irrikan/10**

## Zapatuan, Euskararen Eguna

Euskararen txalapartak zapaturako egiten digu dei. Egongo da bai zer ikusia, zer entzuna, eta zer jana. Edatekorik ere ez da faltako.

Euskara ahoan eta jai gorputza aldean, ibili gaitezen herritar guztiok zapatuan.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

**LARRIALDIAK**

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 25**  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 26**  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. .... 943 79 85 83

**OHARRAK**

**1927. URTEAN JAIOTAKOEN DIAMANTEZKO EZTEIAK OSPATZEKO IRTEERA EGINGO DUTE**

Aurten 75 urte beteko dituzten herritarrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte. Hori dela eta, ekainaren 15ean, Donostiarako irteera antolatuko dute. Interesatuok eman izena ekainaren 5a baino lehenago honako telefono zenbakiren baten: 943 79 77 72 (Eduardo Altube) edo 943 79 85 60 (Tere Barandiaran). Irteerara kinto guztiak daude gonbidatuta.

**JON ARRETXEREN DIAPORAMAK**

Jon Arretzek "7 kolore" izeneko diaporama erakustaldia egingo du maiatzaren 30ean, 19:00etan udaletxe zaharrean.

**ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN**

**Omenaldia eta urrezko domina Demetrioni**


Euskal Herriko Txistulari Elkarteak omenaldia egin zion 1994. urtean Demetrio Iriarteri. Ekitaldi hartan urrezko domina eman zioten Demetrioni. Argazkian orduko Aretxabaletako alkatearekin azaltzen da, Aitor Antxiarekin. Omenaldia jaioterrian egin zioten, Oñatin.



**BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru**

*"Kertenkerixia"*

Kirtenaren ekintza.  
—Kudrilla orrek eztauka kertenkerixia ta jaleua besteik.



GORKA ORTEGA

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**Liburu berrien zerrenda**

**NOBELAK**

- 'Baina bihotzak dio' / Xabier Montoia
- 'Ortzadarra sutan' / Fernando Morillo
- 'Gambito turco' / Boris Akunin
- 'Lo mejor que le puede pasar a un cruasán' / Pablo Tusset
- 'Sed de champán' / Montero Glez.
- 'Los refugios de piedra' / Jean M. Auel
- 'El peregrino de Compostela' (diario de un mago) / Paulo Coelho
- 'Los jardines de la memoria' / Michel Quint
- 'Un día más y un dólar menos' / Terry McMillan
- '13'99 euros' / Frédéric Beigbeder
- 'Erec y Enide' / Manuel Vázquez Montalbán
- 'La abadesa María, la Excelente' / Toti Martínez de Lezea
- 'El libro de un hombre solo' / Gao Xingjian
- 'La citación' / John Grisham

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Maider Garai**  
17an. Zorionak, Pausokako lagun guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Mikel Murillo**  
19an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, aitaren eta amaren partetik.



ESKORIATZA  
**Alexander Sánchez**  
20an. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta aitona-amonen partetik.



ARETXABALETA  
**Martin Garai**  
22an. Zorionak eta urte askotarako, lankide guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Maialen Sánchez**  
24an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Ama, aita eta ahizpa.



ARETXABALETA  
**Jon Dávila**  
24an, 6 urte. Zorionak etxeko partetik eta txintxo ibili.



ARETXABALETA  
**Saioa Elorduizapaterietxe**  
25ean. Zorionak, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Domi Lezeta**  
26an. Zorionak "kaxerita ilustratuari", lankide guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Alaitz Beltran de H.**  
28an, 3 urte. Zorionak, amaren, aitaren eta Eñauten partetik.



ESKORIATZA  
**Elena Arizpeleta**  
28an, 34 urte. Zorionak eta muxu bat Julen, Maider eta Jesusen partetik.



ARETXABALETA  
**Koldo Zubillaga**  
29an. Zorionak eta muxu handi etxeko guztien partetik.

**Zorionak!**


Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia eta emaiazu ezusteko ederra!  
**Doan!**  
Udaletxe zaharrean gaituzu: Durana, 11.

**BABESLEA**

**Zorionak denoi !!!**  
Foto  
**Urkiola**  
Argazkidenda  
HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETA  
TELEF 943 79 39 20

- \* ESTUDIOAK
- \* EZKONTZAK
- \* JAUNARTZEAK
- \* ENMARKAZIOAK
- \* DIGITAL LANAK
- \* KAMARAK ....


*Beti karretean edo albuna dohanik !!!*



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa


**Aholkularitza**

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



**taberna**

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



**LURRINDEGIA OPARI-DENDA**

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA


**OSKAR GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

**ATREBENTZIAEZPADA/ Zapatuen Eurovisión ikusteko asmorik badauketzu? Ze egingo dau Rosak?**




**MARI CARMEN LOZANO**  
Langillie



**ALVARO URRETA**  
Langillie




**PAQUITA CEBRINO**  
Langillie



**JOSEBA CUSI**  
Langillie



**ARACELI VALLE**  
Langillie



**JUAN CABALLERO**  
Langillie

Ez dakit ikusiko doten, senarrak ixten badust bai. Fubolik be ez dago eta iguel bai... Dana dala, Rosak ze egitten dauen jakin gureko neuke, holako publizidatie emun ostien...

Ez, sekule be ez jat gustau Eurovisión eta aurten, iñoix baiño gutxiago. Aburridute gagoz danok, telebisiñuen horixe besterik ez da entzuten-eta, ia zapatu-kuakin akabetan dan.


Ez dakit ikusiko doten, herrixen dantzie dau eta iguel urten egingo dot. Zeiñek ez dau ezaguketan Rosa, hori besterik ez dus-kuie emuten-eta; egixe esan, ez dakit ze egingo dauen.

Ez, ez dot ikusiko, ez jat bat be interesetan. Ez dot jarraitu, baiñe hainbeste publizidate emun dutzie, entzun barik be ez naz geratu. Egixe esan, ez dust bat be inporta Rosak ze egitten dauen.

Seguru asko ez, lanien egongo naz-eta. Dana ikusteko, gaiñera, luze egitten da. Ez dakit ze egingo dauen Rosak, zarata haundixe atara daue bere konture, baiñe ikusi egin biher...

Ez, ez dot ikusiko. Badakit Rosa juengo dala Espaiñaren izenien, zeñek ez daki, baiñe ez dot jarraitu bere prozesue eta Eurovisiónen ze egingo dauen be ez jat interesetan.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK GALARTZAKO ELIZPEA** Kaletarrok ez gara auzoetako elizetara askotan joaten. Galartzakoan, esaterako, lanak hasi berri dira. Gazte koadrila batek, ostera, kalean aspertuta-edo, Galartzako elizarako bidea ikasi du. Elizpean egoteko ohitura hartu du. Ego-tea kontu bat da eta zikinkeriaz betetzea beste bat. Kondoiak, xirringak, kaka, ontziak... Zer ez ote dute topatzen auzotarrek! /M.A.

**ETABARRUAN...**

ASTEAN BEHIN /4

ASTEAN BEHIN /5

KIROLAK /6

**Plataforma indartu guran**

EPEH Aretxabale-tako plataformak baiezkoa eman zioten elkarte eta taldeen laguntza behar du.

**Euskararen Eguna**

Zapatuan ospatu-ko da Euskararen Eguna. Bertsolariak, gazta, babarrun-jana... Denetik izango da.

**II. Mendi Martxa**

Murruxiko MEk II. Mendi Martxa egingo du ekainaren 9an. Horretarako, laguntzaile bila dabil.

**ASTEKODATUA**

**8.019**

**METRO GARAI DA ANAPURNA MENDIA**

Joan den egunean (hilak 16) heldu zen Anapurnako gailurrera Alberto Iñurrategi. Hamalagarrren zortzimilakoa izan du Albertok, eta hori lortu duen hamargarrena da, denetan gazteena.

**BESTEKEESANA**

**“Athleticen azken eskaintzak ez du Urzaizen erantzunik jaso, ez du jokalaria asetzen. Baina ezin dugu aldagelako oreka apurtu, eta bazkidearenganako erantzukizun ekonomikoa bermatu behar dugu. Urzaizek ez du Athleticekin kontratua luzatu, eta beraz, datorren denboraldia antolatzerako orduan beste irtenbide batzuk aurkitu beharko ditugu. Hasiera batean lehenengo taldean eta harrobian daukaguna begiratu dugu, eta nahikoa ez bada, merkatuan zer dagoen ikusiko dugu.**

Entrenatzailearen lana taldearen beharren berri ematea da, baina ez dut uste taldea utziko duenik. Lehenengo taldearen lana ona izan da helburua lortu ez arren goiko taldeekin lehiatu baikara.

**ANDONI ZUBIZARRETA**  
‘Euskaldunon Egunkaria’/02-05-17

**HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik**



*Bapatean... isiltasuna*

**G**aur, ARETXAGAZETarako artikulua idaztea tokatzen zitzaidan eta egia esan, ez nintzen batere inspiratuta sentitzen. Ez dakit zuei gertatuko zaizuen, baina niri gertatu ohi zait, batzuetan inspiratuta sentitzen naizela eta ideiak berehala etortzen zaizkidala burura, eta gauzak erraz aterako direnaren susmoarekin gainera. Baina inspiratuta sentitzen ez naizenean, ba kostatu egiten zait, orain bezala, behin eta berriro pentsatzen ari naiz, ea zer kontu dezakedan nik aste honetan...

telebistako dosia hartzen genuela komentatzen ibili ginen hiru lagun. Gauero berdina, kate batean edo bestean, eta gure artean hitz egin arren, telebista fondoko zarata bezala gelditzen da beti, inoiz ez dugu itzaltzen. Baina joan zen egunean egin genuen, behingoz, telebista itzali genuen eta izugarria izan zen, ezin imajina dezakezuen lasaitasuna bizi izan genuen hiru-urorok. Badakit *kursi* gelditzen dela, *oh ze ondo isiltasuna*, baina benetan oso esperientzia polita izan zen.

**“Baina joan zen egunean telebista itzali genuen eta izugarria izan zen, ezin imajina dezakezuen lasaitasuna”**

Eta pentsatzen dut, ba ez dakit, globalizazioa, Herri Urrats, Israel-Palestina, Alberto Iñurrategi, *Europe's living a celebration*, ... Egia esan denetik ikus entzuten dugu telebistan. Informazio pila bat, albisteak, txutxumutxuak, ...  
Eta honi lotuta, joan zen astean gertatutakoa kontatuko dizuet. Gauero-gauero gure

Eta honekin ez dut telebistaren aurkako iritzi bat eman nahi, baina telebistarekin gauza guztiakin bezala, oreka bilatu beharra dago. Azken finean, argi izan behar dugu, norberaren esperientzia da balio eta irauten duena, eta ez ordu betean telebistan ikusten dugunak.  
Ba horixe, udaberria dela eta bizitza sahal den eta gehien gozatzen saiatu behar garela guztiok!!!



M. J. Aretxaga

## Txikieta handia

Berri pozgarriak entzutea denoi gustatzen zaigu. Urrunetik iritsi zitzaigun **Alberto Iñurategi**ren hotsa. Gelditzen zitzaion 14. zortzimilakoa igo zuen. Lorpen izugarria benetan. Mendizale handi honez gain, beste txapeldunik ere bada gurean. **Asier Atxak** Pentekostes saria irabazi zuen domekan Bergaran egin zen txirindulari lasterketan. Fin ibili da denboraldi osoan Olarrako taldeki-dea eta orain 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelduna da. Sasoiaren daude gero bi kirolariak. Zorionak!

Beste batzuk ez dakit horren sasoiatsu dauden, baina mendian majo ibili ziren domekan. Ohiturari jarraituz, Ojala Zelai egunez, Anjel Bergaretxe, Luis Errasti, Josu Atxaga, Jabier Etxebarrieta, Sokorro Unanue, Iñaki Uribetxebarria, Jesus Osinaga, Julen Abasolo, Nazario Meabe, Jesus Mari Urkia eta Xabier Mendizabal mendian ibili ziren. Besteak beste, udalaren basoak ikusi zituzten. Horiei ere bisita egin behar izaten zaie noizean behin eta.

Zapatuan beste jai bat daukagu, Euskararen Eguna. Heltzeko irrikatan nago, besteak beste, gus-tuko ditudan bi bertsolari etorriko direlako: **Sustrai Colina** eta **Amets Arzallus**. Gazta eta sagardo apur bat janz, gustura entzungo ditut.

**PRESOAK/** Hurrengo bilera ekainaren 3an egingo da, eta udara begira egingo diren ekintzak antolatzen hasiko dira

# EPEH Aretxabaletako Plataformak herriko taldeen laguntza berreskuratu gura du

MIRARI ALTUBE

Indartsu sortu zen Aretxabale-tan euskal presoek aldeko plata-forma. Presoen egoera ez da aldatu, ez behintzat onera, baina plataformak azken urte eta erdian indarra galdu du. Indar hori berreskuratzeko eta lanean jarraitzeko martitzenerako deialdia egin zitzaion taldeei.

Martitzenean, hilak 21, bildu ziren Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabale-tako Plata-forma osatzen duten kideak. Deialdia herriko 34 talderi egin zitzaion, horiek izan baitziren Plata-forma sortu zenean baiezkoa eman zutenak, baina zortzi lagun baino ez ziren elkartu.

Euskal presoek egoera, ostera, ez da batere hobetu azken

urteetan. Horrela bada, Plata-formak sortu zenean izan zuen indarra berreskuratzeko ezinbestekoa dela esan zen bileran. Herriko elkarte eta taldeei deialdia egin ostean jasotako erantzuna ikusita, deialdi pertsonalak egitea erabaki zen. Sei zortzi kidek osatutako taldetxoak sortu gura dute Plataformako kideek ekintzak antolatzen hasteko.

### HURRENGO BILERA EKAINAREN 3AN

Hurrengo bilera ekainaren 3an egingo du EPEH Aretxabale-tako Plataformak. Egun horretan batzen diren lagunek udara begira antolatuko diren ekintzak zehaztuko dituzte. Edozein herritarrek har dezake parte Plata-forman, lan egiteko gogoia baino ez da behar, beraz, animatu eta parte hartu.



EPEH Plata-forma sortu zenean herriko talde gehientsuenek eman zioten baiezkoa

## TXUTXUMUTXUA



### Euskadi Irratiaren bisita Udal Euskaltegira

Joan den eguaztenean, hilaren 15ean, Euskadi Irratia izan zen Leintz Udal Euskaltegian. Euskaltegiko ikasleek Euskadi Irrati-tiko *Babel* saioan euskaltegien artean egiten ari diren lehiaketan hartu zuten parte. Hainbat ariketa egin behar izan zituzten: antzerkia, Ruben Beitia irakasleak asmatutako kantua abestu... Kaleko jendearen laguntza ere jaso zuten, eta guztiei eskerrak eman gura dizkiete. Kaletarrei esker 10 puntu lortu zituzten eta lehiaketako laugarren postuan geratu ziren. /M.A.

## LABUR

### Eusko Jaurlaritzak antolatutako Abelino Barriola saria irabazi du Kurtzebarri Eskolako

Eusko Jaurlaritzako Euskara zerbitzuak antolatu ohi duen Abelino Barriola Deklamazio Saria irabazi du Kurtzebarri Eskolako talde batek aurten laugarren aldiz. Lehen Hezkuntzako 5. mailako Birigarruek izeneko taldea izan da txapelduna, eta euskararen erraztasunez eta doinu egokiz irakurtzen dakitela erakutsi behar izan dute. Lana Karmele Igartuaren gidaritzapean egin dute.

### Alberto Iñurategiri ongietorri beroa egin zioten Murruxoko MEk eta herriak

Joan den eguenean, hilaren 16an, goizean goiz heldu zen Alberto Iñurategi Annapurnako gailurrera. Arratsaldeko zazpietan berriz, hori ospatzeko hamalau etxafuego bota zituen Murruxoko Mendizale Elkartek. Hala ere, ospakizun handienak eguen honetan egin dira Alberto herrira bueltatu denean. Ongietorri beroa egin zioten bai Murruxoko kideek bai herritarrek.

### Astehenekoko ohiko osoko bilkuran bi gai aztertuko dituzte alkateak eta zinegotziek

Astehenean ohiko osoko bilkura egingo da udaltxean. Aztertuko egongo diren gaien artean ingurumenarekin zerikusia duen bat eta mozio bat egongo dira. Mozioa PSE-EEk aurkeztuko du. Iñaki Pierrugues zinegotzia baldin badator behintzat, eta maiatzaren 1ean erre zuten PSE-EEko egoitzarekin zerikusia dauka.



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- HaziakMitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

# JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuakMitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

- Mugimendu Konszientea:** Gorputza adierapen bide bezala dituen aukera ezberdinak aztertu eta bizipenak izan  
*Eguna:* Ekainak 15 (larunbata goizez)
- Emakumeendako defentsa pertsonala:** Emakumeek beraien buruarekin segurtasun maila areagotzeko duen eraso fisikoaren kontrako teknika ezberdinen barneratzea  
*Egunak:* Ekainak 22-23 (larunbata goiz eta arratsaldez, igande goizez)
- Shiatsu:** Shiatsu masaje teknikak gure gorputzeko energi sistema orekatzeko balio du. Oinarrizko helburuetariko bat pertsona bakoitzak duen norbera osatzeko sistema marban jartzea da.  
*Egunak:* Uztailak 13-14 (larunbata goiz eta arratsaldez, igande goizez)

Ilargi plaza 6 • Aretxabaleta / tel. 71 27 92

# ANA'S

jantxidenda

Iparragirre 4.  
Aretxabaleta

# AMETS TABERNA

Iparragirre, 4  
Tel: 943 79 01 29  
ARETXABALETA

**JAIK/** Aurten, atzeratu egin da jaiak, eta egitaraua iazkoaren antzekoa izango da

# Euskararen Eguna, aurten, maiatzeko azken zapatuan

MIRARI ALTUBE

**Otala Zelaiko erromeria domekan ospatu zuten, baina ez Euskararen Eguna. Aurten, aste bukaera berean ospatu beharrean, bi jaiak banatzea erabaki zuen Loramendi EEK parte hartzea gehituko delakoa. Egitarauari dagokionez, iazkoaren antzekoa izango da.**

Aretxabaletar batek baino gehiagok pentsatu du aurten Euskararen Egunik ez ote genuen ospatu behar. Atzeratu egin da, baina bai, aurten ere izango dugu euskara aitzakia hartuta festa egiteko eguna.

## AURTEN, BERTSOLARI GAZTEENAK

Hamaika eta erdiak inguruan emango zaio hasiera aurtengo Euskararen Egunari, eta Leizarra Musika Eskolako trikitilariak ibiliko dira ordu horretan kalean zehar ume, gazte eta nagusiak iratzartu guran. 12:30ean, txalapartariak egingo diete dei herritarrei Mitarte kalera hurrera daitezen, eta ordu erdi geroago, inguruko baserrietako gazta eta sagardoa egongo dira dastatzeko moduan.

13:00etan, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariak hasiko dira lanean. Bertsolari Txapelketako finalean ikusi genituen biak, Egaña eta konpainiarekin batera, eta zapatuan, aurrez aurre izango ditugu. Bertsolari profesionali, berriz, herriko bertsolari gazteek jarriko dizkiete gaiak.

Goizari bukaera emateko, urtero moduan, herri bazkaria antolatu du Loramendi EEK. Menua: gura beste babarrun. Plazan izango da, eta txartelak Arlutz tabernan erosi behar dira.

## MUSIKA ETA ERAKUSKETAK

Arratsalde partean aldebereko xake partidak antolatu dituzte Arlutz Xake Taldeak eta Ezkutu tabernak. Xakezaleek xakean jokatzeak aukera polita izango dute Ezkutu tabernan. Ordu berean, Leizarra Musika Eskolako perkusio taldea arituko da Durana kalean. 17:30ean, Sebastopoleko Titiriteroek hartuko diote txan-



Inguruko baserrietako gazta goxoak dastatzeko aukera egongo da zapatuan.

*Urtero bezala, herri bazkaria antolatu du Loramendi EEK. Menua: gura beste babarrun*

da perkusio taldekoei. 18:30etan EHEek eta Loramendik jende antolatu dute plazan euskararen ofizialtasuna eskatzeko.

Larrain dantza egiten dakiuzuen guztiok, osterara, 19:00etan daukazue hitzordua Mitarte kalean. Eguna bukatzeko, 22:30etik aurrera, Elektrotuna taldea arituko da kalean gora eta behera.

Ekintza horiez guztiez gainera, urtero moduan, hainbat era-

*Eguna bukatzeko, 22:30etik aurrera, Elektrotuna taldea ibiliko da kalean gora eta behera*

kusketa izango dira ikusgai. Eskulan ikastaroan ari direnek euren lanak jarriko dituzte ikusgai, baita bainika egiten dutenek ere. Biak ere, Murruxoko lokalean egongo dira. Okila taldeko tailagileek ere euren lanak erakutsiko dizkigute eta Hiruatx hirugarren munduko taldeak, berriz, materiala jarriko du salgai. Azken talde bi horiek udaletxe zaharrean egongo dira.

## LABUR

### Jokin Antxia da zapatua geroztik Atzegiko Debagoieneko arduradun berria

Gipuzkoako atzeratuen taldeak, Atzegik, arduradun berria dauka Debagoienean, Jokin Antxia hain zuzen. Jokin orain arte Aretxabaletako ordezkaria izan da, eta kargu hori orain Adolfo Etxebarriak hartu du. Jokinek lan handiagoa izango du hemendik aurrera, Debagoieneko zortzi herrietako ordezkariekin batzeaz gain, bi hilabetetik behin Donostiara joan beharko baita Atzegik egiten dituen batzarretara.


Atzegik Aretxabaletan daukan etxea bestalde, dagoeneko bukatuta dago, eta orain janzen ari dira, sukaldea jarri, logelak egokitu... Irailean lau lagun etorriko dira bertara bizitzera, eta interesa dutenak izena ematen hasita daude.

### Astehenean zabalduko dute Udaleku Irekietan parte hartzeko izena emateko epea

Urtero antolatzen ditu Udaleku Kultura Sailak Udaleku Irekiak eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Uztailaren 1ean hasi eta 19a bitartean, goiz eta arratsalde ibiliko dira umeak jolasean, eskulanak egiten, edo kantuan. Lau eta hamalau urte arteko ume eta gaztetxoek ederto pasatzen dute uztaileko hiru aste horietan.

Horretarako aurrez eman behar da izena, baita ordaindu ere. Izena emateko epea astehenean bertan, maiatzaren 27an, zabalduko dute eta ekainaren 10ean amaituko da. Kultura etxean edo Ludotekan eman ahal izango da izena. Horren berri ematen duen orritxo eskolatan banatuko diete umei datozen egunetan.

## TXUTXUMUTXUA



### Otala Zelai Egunean, giro ezin hobea

Ez zuen hutsik egin eguraldiak domekan eta herritar ugari hurreratu zen Otala Zelaira, batzuk autoan eta beste asko oinez. Giro ezin hobea sortu zen; gaztelu puzgarrietan, animaliekin, dantzan... izugarri disfrutatu zuten umeek eta gaztetxoek eta gurasoak ere ez ziren geratu atzera begira. Entsalada goxogoxoak prestatu zituzten Entsalada Lehiaketako zortzi parte hartzaileek, eta norberak etxetik eramandakoarekin batera, egon zen bai zer jan eta zer edan. /M.A.

## BEIRALAN KRISTALDEGIA

- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurriera eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

## INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

## Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

## Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

MENDIA

## Ekainaren 9an egingo dute bi urtean behingo mendi martxa

Laguntzaileak behar ditu Murruxiko MEk mendi martxa antolatu eta bideratzeko

MIRARI ALTUBE

Duela urte bi antolatu zuen lehen aldiz Murruxiko MEk mendi martxa. Orduan, bi urtean behin egitea erabaki zuen; hortaz, aurten, bigarren aldia izango da. Antolatuta dago guztia dagoeneko; txikieria batzuk falta dira, tartean, laguntzaileak topatzea.

Ekainaren 9an, domekan, egingo dute aurtengo mendi martxa. Murruxiko MEk antolatuta dauka guztia dagoeneko, laguntzaileak baino ez ditu behar egunean bertan laguntzeko.

### BOLUNTARIOAK LAGUNTZEKO PREST

Orain dela urte biko ibilbide berbera egin beharko dute mendizaleek aurten ere. Irteera, ordea, herriko plazan egon beharrean Felix Inurrategi lorategian egongo da. Handik, Oro, Larrino, Urkulu, Urrexola, Ugastei, Degurixa, Alabita, Leixargarate, Arlutz, Kurtzebarri eta Mendiola zeharkatu beharko dituzte mendizaleek, berriro Aretxabaletara itzultzeko. Guztira, 28 kilometro, eta tartean, hamarretakoa ere eman-



Orain urte bi egin zuten mendi martxara ia 300 mendizale etorri ziren.

go diete. Parte hartu gura duten guztiak egunean bertan eman beharko dute izena.

Orain dela urte bi, 30 lagun ibili ziren Murruxikoko antolatzaileei laguntzen. Aurten ere aurreko asteetako prestakizunetan eta

egunean bertan laguntzeko boluntarioak behar ditu Murruxiko MEk. Laguntzeko gertu zaudeten guztiok hurreratu zaitezte Murruxikoko lokalera, martitzenetan, edo elkarte kideren batekin jarri harremanetan.

PILOTA

### Azkoitiarrek herriko pilotariak kanporatu dituzte Herri Arteko Pilota Txapelketatik

Aurreko egubakoitzean jokatu zituzten Herri Arteko Pilota Txapelketako itzulerako partiduak. Azkoitian 1-2 irabazi zieten azkoitiarrei, baina Aretxabaletan azkoitiarrek gailendu zitzaizkien, emaitza berberekin: 1-2. Berdinketa dela eta, egindako tantoak hartu dituzte kontuan, eta horretan azkoitiarrek irabazi diete aretxabaletarrei, kadetei izugarrizko tanto pila egin zieten-eta.

TXIRRINDULARITZA

### Laxy taldeko Igor Romero nagusitu zen esprintean Pedro Guenetxea Memorialean

Lehenengo eta bigarren mailako kadeteendako domekan jokatu zen Pedro Guenetxea Memorialean Laxy taldeko Igor Romero nagusitu zen. Esprintean nagusitu zen, eta ordubete eta berrogeita lau minutu behar izan zituen esprinta jokatu zuen taldetxoak. Bigarren postuan AEG taldeko Gonzalo Vicente iritsi zen, eta hirugarrenean, berriz, Tximela taldeko Igor Sagardoi.

### JOKATZEKOAK

#### FUTBOLA

UDA-Mundarro  
Preferentea.  
Domeka. 16:30. Ibarra.

#### PILOTA

Urretxuko Txapelketa  
Errasti anaiak  
Seniorrak.  
Zapatua. 17:00. Urretxu.

### EMAITZAK


#### FUTBOLA

Lagun Onak 4 UDA 0  
Preferentea.  
UDA 3 Urnieta 2  
Bigarren mailako erregionala.  
Mutriku 2 UDA 3  
Lehenengo mailako kadeteak.  
Lasartearra 7 UDA 0  
UDA 1 Zestoa 2  
Bigarren mailako kadeteak.


#### PILOTA

Herri Arteko Pilota Txapelketa  
Aretxabaleta 0 Azkoitia 22  
Kadeteak.  
Aretxabaleta 22 Azkoitia 14  
Gazteak.  
Aretxabaleta 14 Azkoitia 22  
Seniorrak.

## Mitarte Garai baserri-turismo etxe berria



Orain sei gela bikoitz ditugu, telebista eta guzti, eta hiruk bainugela ere badute



Lasai-lasai egoteko taberna

**Mitartegarai**

Areantza auzoa  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 17 51  
mitartegarai@euskalnet.net

**Batzarretarako gela ireki berria ere badaukagu!**

ERRETRATU ZAHARRA

# Diamantezko ezteien ospakizunak

**E**kainaren 15ean, antzeko erretratua egitea posible izango da. Izan ere, argazkian azaltzen diren gizon gehienak berriro ere elkartuko dira bazkari eder bat egiteko.

1927. urtean jaiotakoak dira argazkian azaltzen direnak; aurten, 75 urte beteta dituztenak edo beteko dituztenak. Hori dela eta, diamantezko ezteiak ospatuko dituzte: Donostiara irteera egingo dute. Egun osorako egitaraua gertatu dute. 09:30ean, Donostiarako autobusa hartuko dute. Gero, goiz partean, Gipuzkoako hiriburuan ibiliko dira, eta bazkaria Zestean egingo dute. Azkenik, arratsaldean, berriro ere herrira bueltatu aurretik, Zumaia bisitatuko dute.

Ondoko erretratu zaharra atera zutenean, 22 urte zituzten kintoez. Orduan, gizonezkoek bakarrik egiten zuten kinto afaria. Ondorioz, argazki-kameraz ateratako oroigarrian ere horiek bakarrik azaltzen dira. Baina, zorionez, garaiak aldatuz joan dira eta orain, andre eta gizon guztiek hartuko



dute parte ospakizunetan. Guztira, 30 bat lagun inguru elkartuko direlakoan dago Eduardo Altube, bidaiaren antolatzailetariko bat. Edozelan ere, gehiago izan daitezen animatu gura ditu bere kintokoak.

Ezkerretik hasita, zutik, honako hauek daude: Luis Otxoa, Julian Atxa-

ga, Jose Mari Antxia, Gregorio Galdos, Teodulo Toledo, Baltasar Bengoa, Pantaleon Elortza, Felix Berasaluze, Jabier Igartua, Jose Mari Jausoro, Felix Mendizabal eta Gregorio Basauri.

Erdian, zutik: Hilario Etxenausia, Nikolas (Bedoñatarra) eta Jose Mari Etxeberria. Azkenik, eta ezkerretik

hasita: Emilio Garro, Eduardo Altube, Jose Unanue, Angel Oianguren, Pedro Ezpeleta, Miguel Arenaza, Jabier Iturbe, Lorentxo Andonegi, Rufino Ezkurra eta Esteban Egia.

**Argazkia:** Eduardo Altube

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

## Duranak itxura berria hartu du

**B**i urteren bueltan sekulako aldaketak egin dituzte Aretxabaletako alderik zaharrenean, hau da, Durana kalean. Aldaketa hori gertatu da etxebizitza guztiak zaharberritu dituztelako. Egia esatearren, argazkiotan ez da horrenbeste nabari itxura aldaketa. Izan ere, etxebizitzaren tamainan edo forman egon beharrean, desberdintasun handiena hormen kolorean dago.




≈ 1999

Argazkia 1999an ateratakoa izan arren, Durana kaleko etxebizitzek aspalditik erakusten zuten tamalgarri zeudela.



2002

Zaharberritze lanak egiterakoan, kanpoko aldetik lehengo itxura berari eutsi diote Durana kaleko etxebizitzek.



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**DOIKALSE**

**Elektroerosio lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44

**PAGALDAI**


*Opari denda  
Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28



**AZKARATE  
AROSZTEGIA**

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19.  
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24



# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 24a / 81. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com



AMAGOIA LASAGABASTER

Herriko hainbat elkarte eta taldetako ordezkariak batu ziren jaiak gertatzeko egindako batzarrean.

## Jai batzordea San Pedro jaiak gertatzen hasi da

AMAGOIA LASAGABASTER

San Pedroak ospatzeko oraindik hilabete baino gehiago falta da. Hala ere, Eskoriatzako Jai batzordea ekin da egitaraua zehazteko batzarrek egiten. Azken batzarrean, besteak beste, udaletxeko obrak kontuan hartuta egingo diren aldaketek berba egin zuten.

Urtero moduan, Eskoriatzako Jai batzordea hasi da San Pedro jaiak ospatzeko egitaraua gertatzen. Joan den maiatzaren 22an izan zuten bigarren batzarra. Herriko hainbat taldetako ordezkari bana batu ziren; besteak beste, Amuskako, Erretiratuen Elkarteko, Egaseko, Musika Eskolako Bاندako, Parrokiako, Trikitixa Taldeko, Axtrokiko, Luis Ezeiza Ikastolako Guraso Elkarteko eta Jose Arana Ikastolako ordezkariak izan ziren. Guztiak ere -kultura teknikari Arantxa Untzuetaekin eta kultura zinegotzi David Arrietarekin lankidetzan- aurtengo egitaraua gertatzen ibili ziren.

Jaietako egitarauan urtetik urtera aldaketa gutxi izaten

dira. Horrela, oinarrian, aurten ere, iazko egitaraua izan zuten. Edozelan ere, ekitaldi puntualak beti izan ohi dira, eta horiek aurrez prestatzea komeni da. Horrez gain, batzordekideak ahalgindu ziren jaietan gerta daitezkeen arazoei irtenbidea ematen. Aurten, esaterako, udaletxeko plazako obrak direla-eta, hainbat ekitaldi ezin izango dira leku horretan egin.

### TXUPINAZOA ETA PREGOIA

Orain arte, San Pedro jaien hasiera iragartzen zuten txupinazoren jaurtiketa eta pregoia udaletxeko balkoitik egin izan dira. Aurten, baina, udaletxeko obrek aldaketak eragin dituzte. Batzordekideek erabaki zuten pregoia kultura etxetik egitea. Txupinazoa, berriz, balkoitik beharrean

*Txupinazoa plazatik botatzea eta pregoia kultura etxeko balkoitik esatea erabaki zuten*

plazatik botatzea pentsatu dute. Azken gai horretan, etxafuegoa lurretik botatzea arriskutsuegia ez ote den kezka azaldu zuten jaietako batzordekide batek. Dabid Arrietak, ordea, iragarri zuten Udalak beharrezko neurriak hartuko dituela. Eta azkenik, aurten txupinazoa botatzeko ohorea Ezker Batuko Jabier Zugasti zinegotziak izango duela erabaki zuten, aho batez.

Bestalde, buruhandekin egin beharreko ekitaldiek zeresan handia eman zuten. Izan ere, Eskoriatzako ez daude nahi adina buruhandi, eta dauden apurrak, gainera, nahiko hondatuta daude. Guzak horrela, buruhandi gehiago egin edo beste buruhandi batzuk kanpotik ekartzeko aukerak eztabaidatu zituzten.

Danborrada ere izan zuten mintzagai; batzordekideek pentsatu zuten, udaletxeko plaza txikia dela-eta, danborrada kiroldegi parean amaitzea. Dena dela, behin betiko erabakiak hartu aurretik, erabaki zuten mahai gainean jarritako gai guztiak hurrengo batzarrean finkatuko dituztela. Jai batzordea ekainaren 5ean batuko da berriro ere.

## LABUR

### Eskoriatzako areto futboleko Ohorezko Ligako taldea Euskal Ligara igo da

Garaipen handia lortu du areto futboleko Ohorezko Ligako taldeak: Euskal Ligara igotzea, hain zuzen. Joan den astean Gasteizko Comit taldearen aurka 5-5 egin ostean lortu du mailaz igotzea. Denboraldia oraingo astean bukatuko da, eta azken partidua zapatuan jokatu du, Eskoriatzako bertan, Agrupación Deportiva Componentes Neumáticos SMC taldearen aurka, 17:00etan.

### Ehunka ikaslek, txiki nahiz nagusi, gogotik egin zuten kirola Almen Egunean

Batxilergoko ikasleak, hankak lotuta, hori bai, ikastolako txikien kontra jokatzeko duten ohiko futbol partiduarekin ekin zioten egunari. Eta betiko moduan, txikiak irabazi, gainera! Joan den barikuan, Almen Egunean, euskal jokoeak, mahai-jokoeak eta filmek lekua izan bazuten ere, kirolak izan zuten protagonismo nagusia, duda barik. Adin guztietako ehunka umek hartu zuten parte egin ziren kirol ekintzetan. Arratsaldean, jai izan zuten guztiak.



### Oinezkoendako bidea, zabalik

Almengo bidegurutzean Eskoriatzako Industrialdeko lanak direla-eta ia bi astez itxita egon ondoren, oinezkoen bidea zabalik dago berriro. Industrialdea egiteko, erreka desbideratu egin zuten. Horrek ekarri zuen Almenera joateko autoendako bidea egun dagoen lekuan kokatzea, eta oinezkoena, berriz, erdira estutzea. Oinezkoen bidea itxita egon da, Ederlanetik industrialdera argindarra pasatu eta Almengo eta industrialdeko ur zikinak sarera eramateko lanak egin dituztelako. Lan horiek joan den urteko irailean bukatuta egon behar zuten. /A.G.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzaila	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**VI. FERIXIE EGUNEKO HERRI BAZKARIA**

Ekainaren leian, VI. Ferixie egingo den egunean, herri bazkarian parte hartu nahi duenak txartelak salgai ditu ohiko lekuetan. Maiatzaren 30a bitartean erosi ahal izango dira bazkarira joateko txartelak.

**V. TXORIMALO LEHIAKETA**

Egun horretan bertan, V. Txorimalo Lehiaketa egingo dute, eta txorimaloak egiteko parte hartu nahi duenak izena ematea besterik ez du, maiatzaren 30a aurretik, ikastolan. 4 eta 99 urte bitarteko ume guztiak har dezakete parte.

**AXTROKIRENAGENDA**

**ARDO DASTATZE IKASTAROA**

Datorren astean, 28a, 29an eta 30ean, Kultur etxean, ardo dastatzeari buruzko ikastaroa egingo da. Izena emateko epea gaur amaitzen da. Bazkideek, 15 euro, eta ez bazkideek, 18 euro.

**ELKARRIZKETA**

**DANIELLA COTICA/COMENIUS PROGRAMAKO KIDE ERRUMANIARRA**

*“Proiektuaren izen ofiziala euskaraz jarri genuen: Iragana, Oraina, Geroa”*

AINZANE GARDOKI

**C**omenius-ek, Europako Batasunak antolatzen duen programak, Europako ikastetxeen arteko komunikazioa eta elkar ezagutza bultzatzea du helburu. Daniellak, semea lagun duela, gurean pasatu ditu egun batzuk.

**Zer eskaintzen dizue Comenius programak?**

Europako beste estatu batzuekin harremanetan jartzeko aukera paregabea. Hainbat hezkuntza sistema ikusi ditugu; Errumaniatik kanpo zer gauza egiten diren jakin eta etxean egiten ditugunak aztertzeke balio digu Comenius programak.

**Noiztik ari zarete lanean eta zer lantzen duzue?**

Duela bi urte hasi ginen lanean. Bost partaide gara guztira: ingelesak, txekiarrak, austriarrak, euskaldunak eta errumaniarrak. Jorratu dugun gai nagusia gaztedia izan da. Lehenengo urtean, ikastetxe bakoitzak gaiarekin lotutako film bat egin zuen. Gero, film guztiak Vienan eman zituzten. Egunkari bat ere egin genuen. Almen ikastolako filma izan zen guztien artean onena. Horregatik, Europako proiektuaren izen ofiziala euskaraz jarri genuen: *Iragana, Oraina, Geroa*.

**Egun batzuk eman dituzue gurean.**

Eta oso gauza interesgarriak ikusi ditugu: Arantzazun egon ginen; Donostia eta Orío ere ikusi genituen asfēburuan. Baina Deba goien izan gara, gehienbat; bertako komunikabideak eta Arizmendi Ikastolako hainbat egoitza ikusi ditugu. Atentzio handien, dena dela, Eskoriatzako Jose Aranek eman dit, zein leku zoragarria! Eta zein lan polita egiten duten ume txikiekin!

**Ibarra ikusi eta gero, zer esango zeniguke?**

Herri zoragarria duzuela. Eta batez ere, gazteei esango nieke jakin dezatela herri hau aprezia-



AINZANE GARDOKI

*“Atentzio handien Jose Arana Ikastolak eman dit, zein leku zoragarria eta zein lan polita!”*

tzen eta zaintzen. Hemengo ikasleak gurera joango direla uste dut, eta Errumaniako errealitatea zein den ikusita, argi izan hemen daukaten guztia hobeto baloratuko dutela.

**Komunismoaren ondoren, zelan dago Errumania?**

*“Gazteei esango nieke jakin dezatela herri hau apreziatzen eta zaintzen”*

Gizartean diferentzia ikaragarriak sortu dira. Ekonomia alorrean hamar urte beharko ditugu Europarekin parekatzeko. Baina Europara hurreratu gura badugu, eta hori da guztion nahia, pentsatzeko era aldatu egin behar dugu. Badago non inbertitu!

**LABUR**

**Txikien danborrada kolokan dago**

Txikien danborrada egiteko herritarrendako egindako batzarrean ez zen jende nahikoa batu. Gutxienez 15 lagun behar dira danborrada antolatzeke, eta bederatzi batu ziren. Danborrada bertan behera uztekotan izan ziren, baina martitzenerako, 18:00etan, azken deialdi bat egin dute.

**Danborrak gogotik astintzen dituzte emakumeek**

Amuskak ere ez du atzean gelditu nahi izan, eta aurtengo San Pedroetako danborradan parte hartuko duela esan du. Duela aste batzuk pentsatu eta ekin zioten lanari. Geroztik, astelehenetan, gaueko bederatzi eta erdietan danborra astintzeko elkartzan dira herriko 18 emakume.

**Maila ona erakutsi zuten Almengoek Bordelen**

Laugarren urtez Bordeleko Nazioarteko Futbol Txapelketan hartu du parte Almenek. 44 jokalaria, zortzi arduradun eta beste 70 guraso izan dira Bordelen. Guztira, Frantzia, Alemania, Errumania eta Poloniako 80 talde izan ziren. Barça eta Almen ere izan ziren tartean. Oso ondo izan ere!

**Herriko sei gaztek HUHEZIKO orlak jaso dituzte**

HUHEZI Fakultateko ikasleek, ikasketa bakoitzeko egin dituzten ekitaldi akademikoetan, orlak jaso dituzte. Guztira, Eskoriatzako sei ikasleri eman dizkiete dagozkien orlak. Bi, Hizkuntzen Psikopedagogian lizentziatuko dira, hiru, Humanitate Enpresan eta bat, Irakasle Ikasketetan.

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA



*Gustora egoteko!*


Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
943 71 40 63

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**

**LENIZ**  
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



AMAGOIA LASAGABASTER

Getariara bidaia egiteko antolaketa lanak egiten ibili ziren GURELEkoak joan den martitzeneko batzarrean.

## GURELEkoek Getariara egingo dute aurten umeeekin irteera

AMAGOIA LASAGABASTER

**Urtero-urtero egiten dute GURELEkoek -Gatzagako Guraso Elkartekoek- bizpahiru eguneko irteera. Orain arte, Elantxobera joan izan dira, baina aurten, Getarian igaroko dituzte opor txiki batzuk. Bidaia gertatzeko, batzarra egin zuten martitzenean.**

Martitzenean, hilaren 2lean, egin zuten GUREL elkartekoek bilera Gatzagan. Mahai gainean gai bakarra izan zuten: aurten Getariara egingo duten bidaia antolatzea.

Gatzagako Guraso Elkarteko lagunek urtero egiten dute hiru eguneko irteeratxo bat. Orain arte, Elantxobeko aterpetxe baten igarotzen zituzten aisialdirako egunok. Aurten, ordea, Elantxoben euren lekuri ez eta, Getariako Askixu auzora joango dira. Irteera maiatzaren 31tik ekainaren 2ra egingo dute, eta guztira, Gatzagako 30 lagun inguru joango dira. Bidaia txiki horren helburua da Gatzagako ume eta gurasoek giro onean elkarbizitza egitea. Horrela, orainoan ere

GUREL elkartekoek aterpetxe bat hartu dute errentan. Umeei, etxeko giroa eskaini gura izaten diete eta, hori dela eta, gurago izaten dute aterpetxeko bizimodua. Hala ere, ez dira egun osoan Getariako aterpetxean sartuta egongo; izan ere, egun osorako txango bat gertatzen dabilta dagoeneko.

### ZAPATUAN ZARAUTZERA

Martitzenean egindako batzarrean Getarian egongo diren hiru egunetarako planak egin zituzten. Ekainaren leian (zapateria), esaterako, Getariatik Zarautzera egun osorako irteera egitea pentsatu zuten. Goizean aterpetxetik irten, eta ume nagusiak eta guraso batzuk oinez joango dira Zarau-

tzera. Ume txikiak, berriz, autoz joan beharko direla pentsatu zuten. Gero, eguna hondartzan edo herri inguruan pasatu ondoren, nagusienak autobusez itzultzea gura dute Getariara. Aurreko urteetan trenean ibili izan dira, "herrian aukerarik ez eta, gustatzen zaie trenean ibiltzea, baina aurten ez dute seguruena aukera hori izango" esan digu Rosa Urretak.

Bestalde, domeka, hau da irteerako azken eguna, Getarian pasatzea erabaki zuten Guraso Elkartekoek. Goizean eguraldi ona egin ez gero, hondartzara joango dira, seguruena. Bazkalostean, berriz, maletak gertatu eta Gatzagara bueltatuko dira.

Bidaiaren zenbatekoari dagokionez, esaterako, lau laguneko familiak 66 euro inguru ordaindu beharko dituela esan zuten batzarrean. Betiere, bidaia ahalik eta merkeen egin gura izaten dute. Horretarako, hemen inguruko dendetan erosten dute janaria eta edaria, besteak beste. Martitzenean egindako batzarrean, Getariarako bidaia arrakastatsua izan dadin, ia guztia lotuta utzi zuten GURELEkoek.

*"Elantxoben lekuri ez eta, Getariako Askixu auzora joango dira GURELEkoak"*

## ELKARRIZKETA

### LUR URIBETXEBARRIA ETA GARAZI OROBENGOA

*"Denok pasatzen dugu ondo, gurasoek eta guk"*

**L**ur eta Garazi datorren asteburua noiz helduko zain daude. Uretan ibiltzeko oholak hartu eta Getariara joateko irrikan daude. Azkeneko urteetan Elantxobera egin izan du GURELEk irteera, baina aurten, herriko beste 30 bat lagunekin batera, Gipuzkoako kostaldean pasatuko dute asteburua.

### Elantxobe ala Getaria gurago?

**Lur:** Getarian ez dakigu zelan ibiliko garen. Elantxoben primeran pasatu izan dugu beti.

**Garazi:** Elantxoben moduan, Getariak ere badu hondartza, eta hori gustatzen zaigu gehien: hondartzan oholarekin ibiltzea eta karramarroak harrapatzea.

**Eta eguraldi txarra egiten badu?**

(Elkarri begiratu diote, zalan-tzaker, baina aho batez...) Ez du egingo! Hondartzara joango gara!

**Zuek gaztetxoak zarete, baina ume txikiak ere joango dira zuekin batera asteburua pasatzera. Atsegin duzue?**

**Lur:** Txikiak ondo moldatzen naiz, baldin eta gogaikarri ez diren jartzen bitartean. Baina ondo pentsatuta, gure adineko koadri-la joan baginateke, hobeto!

**Garazi:** Nik ume txikiak oso gogoko ditut. Pozik joaten naiz.

**Eguneko ekintzak ala gaueko parrandatxoak gurago?**



*"Elantxoben moduan Getariak ere badu hondartza, eta hori gustatzen zaigu gehien"*

**Lur:** burundara apur bat atarata, gaueko parranda.

**Garazi:** egunekoa eta gauekoa. **Gurasoek ala zuek pasatzen duzue hobeto ?**

**Lur:** nire ustez, guk, baina gurasoek ere...

**Garazi:** Nik uste dut denok pasatzen dugula ondo; izan ere, gurasoak ere gustura ibiltzen dira berriketan.

### ESKORIATZA

Tfno 714345



MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

DORLETA

Aranburuzabala, 22 behe  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

aroztegia  
**Leintz**

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingeru-guardako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

Calderería  
Cantera, S.L.  
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilita

Aingeru-guardakoa ibilbidea z/g  
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21  
ESKORIATZA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida

**Altube**  
elktrizitatea CB

San Migel 13 - 1D  
Aretxabaleta. 943 79 53 88

**ALTUNA** Zurgindegia

Julio Altuna

Basabe poligonoa, A-2-3  
ARETXABALETAK  
943 79 72 55

**TXOMIN**  
igeltserotza  
ARETXABALETAK

ERREKABARREN 20  
607 739 835 / 943 79 63 94

RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA

**"R.E.L.E."**

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZAK

**AITZORROTZ**  
elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETAK

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza  
Dekoratiibo eta Industrialak

San Pedro, 14 behea ESKORIATZAK  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Mobila: 608 92 11 18

**PINTURAS**  
ESKORIATZAK

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz. ESKORIATZAK  
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZAK  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

**L. GONZALEZ**  
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABALETAK  
686 113 581 / 943 79 65 46

**SANER**  
ITURGINTZAK

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETAK

943 79 64 91 / 605 71 66 92 / 629 47 72 70

**URKO**  
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenimendu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOAK  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGIAK

Aluminios  
**KURTZEBARRI**  
Aluminioak

Araba ibilbidea, 17  
•Tel.: 943 79 28 41 •Fax: 943 79 79 06  
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
•E-mail: kurtzebarriahioak@euskalnet.net

**GORBEA S.L.** **K21**

Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALETAK  
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

**ARETXABALETAK**  
ITURGINTZAK

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETAK

**J.J. ITURGINTZAK**  
**IRURE**

URA  
GASA  
KALEFAKZIOAK

MITARTE 15  
ARETXABALETAK

943 793 187

# Citroën C3

Nabarmenki berria



Azkenean ere, hemen dago.

Nabarmenki apurtzailea den autoa heldu da.

Barrualdea eta kanpoaldea, zu liluratzeko pentsatuak.

Nabarmenki berritzailea: aparkatzeko laguntza elektronikoa, direkzio lagundu elektronikoa, aire-girogailu digitala...

Nabarmenki gaztea: irrati CD ekipoa, 6 bozgorailurekin.

Nabarmenki praktikoa: maletategi modulagarria (Moduboard)

Nabarmenki oldartsua: 110 ZPrainoko motorrak.

Nabarmenki segurua: ABS balaztatze banatzaile elektronikorekin eta urgentziatzeko balaztatzeari laguntza, ESP (egonkortasunaren kontrol dinamikoa) eta 6 aire-zaku.

Eta pribilegiatu sentitu gura baduzu, ikus ezazu mundua bere sabai panoramikoaren bitartez.

CITROËN C3 berria. Nabarmenki ezberdina.

 **CITROËN C3**

9.430 €-tik aurrera

[www.citroen.es](http://www.citroen.es)

Ekipamendua bertsioen arabera. Salneurria gomendatua C3 1.1i modeloerendako (BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, merkaturatze-promozioa eta gasolina autoendako Prever Plana barne). Hori guztia aplikagarria izango da operazioan parte hartzen duten salmenta lekuetan. Baliagarria hilabete amaiera arte stock-ean dauden autoetan, penintsulan eta Balear Uharteetan. Citroën Informazioa: 902 44 55 66

C I T R O Ë N - E K E D O Z E R E G I N D E Z A K E

Etor zaitez:

**CHAPIME TAILERRAK SCL** Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala

Araba etorbidea z/g Tel.: 943 79 45 22. Arrasate.

  
**CITROËN**